



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



### Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Eñaut Agirre (Herritarra)
- Belen Maiza (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Jose M<sup>a</sup> Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Angelica Moreno (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. **Aurreko bi akten onarpena**
2. **Prozedimendu ezberdinen azterketa eta aukeraketa**
3. **Kronograma**
4. **Gaikako bilketa tasa adostea**
5. **Kontsultarako galdera**
6. **Hurrengo bilera**

### Bi akten onarpena

TEKNIKARIA: Bi akten inguruan Landarlan, Bildu eta Alkateak hainbat aportazio egin dituzte. Bakoitzari aportazio hauek azaltzeko eskatzen die.

BILDU: Bilera honetarako aktak moldatuta egon behar zutela esaten du. Bestela ezin direla onartu.

TEKNIKARIA: Aportazio hauek bezperan eta gaur jaso dituela eta ondorioz, moldatzeko astirik ez duela izan esaten du.

LANDARLAN: Web orrialdean hondakin mahaiko informazioa zintzilikatu da eta bertan gure partehartzea ez zen azaltzen eta nik teknikariari esan nion hau aldatzeko. Baina, bertan atez-atekoaren aurkako plataformako kideak parte hartuko duela jartzen da baina mahai honetan eta aktetan "herri ekimena" bezala izendatzen zaio. Gaur, web orrialdeko informazio horretan aldatuta dago eta herri ekimena bezala azaltzen da. Arraroa egiten zait ekimen honen partehartzea.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



**HERRI EKIMENA:** Gaur egun ekimen hau ez da existitzen. Ekimen honek garai hartako herritar batzuek zuten kezka adierazteko parte hartzen du. Gainera, beraiei gonbidatu egin dituztela erantzun du.

**ALKATEA:** Partehartzaileen zerrenda Gobernu Batzordean landu zen.

Aktari dagozkien aportazioak azaltzen hasten dira:

### 1. AKTA

**LANDARLAN:** Akta aztertu dugu eta komertzioen bilketa zehaztu egin behar da, bilketa hau batzuentzat atez-atekoa da. Sasietak ez zuen hau izenez definitu.

**BILDU:** Beraiek ere zergatik ez zaion atez-atekoa deitzen galdetzen du. Atez-atekoa bezala azaltzea nahi dute.

**EAJ:** Bileretara Landarlanetik zu bakarrik etortzen zara, beraz, taldean ezin duzue aztertu akta hau, ez baitute parte hartu bilera horretan eta ez dakite zer esan dugun.

**LANDARLAN:** Arrazoi ematen dio azalpen honi.

**ALKATEA:** Aktan zehaztu adostasun bat dagoela kontsulta egiteko eta gaikako bilketa berdina edo handiagoa lortzeko. Mahai honek eruduzkoa izan behar du.

**ORDIZIA ORAIN:** EAJtik bi partehartzaile daudela esan nuen eta adostu genuen talde politikoetatik bakarra egon behar zuela.

**TEKNIKARIA:** Josemi Santamaria Alkatea bezala izendatuta dago eta horrela azaltzen da aktan.

**ALKATEA:** Alkateak siglak kentzeko eskaera egiten du.

**BILDU:** Sasietak aurkeztutako sistemak ez dira aktan azaltzen. Aktatan azaldu behar du ahalik eta informazio zuzenena, gardenena eta zabalena. Mahai honen egitekoa, ezagutza zuzena ematea da, herritarrek era arduratsuan erabakia hartzeko ahalmena izan dezaten.

**BILDU:** Edukiontzien sistemekin langile gutxiago behar dira, zehaztu zenbat langile gutxiago, 6 langiletatik 4 langiletara pasatzen da.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



### 2. AKTA

**TEKNIKARIA:** Aktarekin batera Sasietako azken aurkezpena ez zuelako bidali barkamena eskatzen du. Azkenekoa Sasietak gaur pasa diola eta denei gaur goizean bidali dizuela esan du Honela, azken aktan dauden datu ekonomikoak ez dira benetakoak eta moldatu egin behar ditu.

**LANDARLAN:** Ordizia Orain-ek itzulpen sistemaren inguruan egin zuen aportazioan nik ez nuen ulertu aktan azaltzen den moduan, baizik eta denbora galtze bat zela bezala ulertu nuen. Mahai honen helburua kontsulta egitea da, denak ahalegin handia egiten ari gara, denbora asko ematen ari gara, bizikidetzat bat behar da. Euskara gure ama hizkuntza da eta harreman hizkuntza ere. Horregatik itzulpen sistema eskatzen da. Euskaraz egitea eta ondoren itzultzea edo ez itzultzea oso legítimo da. Gainera, Udalak badu itzulpen sistema bat.

**ALKATEA:** Itzulpen sistema badago baina bi eragozpen ditu:

- Kostua oso altua da
- Itzulpenak ez dira zehatzak

Denbora galtzearen inguruan, ez dut uste itzulpenengatik zela baizik eta gaiaren inguruan sortu zen debatearengatik baizik.

**HERRI EKIMENA:** Gai honekin errudun sentitzen naiz. Baina nik nahiago dut nire denbora eman eta ez dirua gastatu gai honetan.

**PATXI:** Ni bilera batetan egon naiz itzulpen sistemarekin eta ez zen ezer ulertzen, euskaraz esaten zenetik gaztelerara itzultzen zenera alde handia zegoen. Euskaraz esan zenarekin ez zuen zerikusirik.

**PSE:** Plenotan erabiltzen da eta nahiko gaizki iristen da informazioa.

**LANDARLAN:** Lehenengo bileran Alkateak emandako erantzuna jakitea eskertuko genuen.

**LANDARLAN:** Sasietak sistema hobereena zehaztu zuenean, ez zen definitu zein sisteman, edukiontzien inguruko aurkezpena eskatu zioten eta berarentzat hobereena bilketa sistema merkeena, tratamendua jaitsi eta sarrerak igotzen dituen da.

**BILDU:** Aktako tratamenduko datuak ez daude ondo. Sortzen den errefusa eta organiko kantitatea zehaztu.

**BILDU:** Balantzeko datua ematean, Beasaingoa merkeagoa dela jartzen da baina ez zenbaten. Zehaztu, 4 € merkeagoa dela.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



**BILDU:** GHK-k organikoarentzat jarri duen tarifakazioan, gaikako bilketa ondo egiten duenari zigortu egiten dio. Udalerrri bakoitzak ordaindu beharko luke bere batezbestekoaren arabera, baina kostua udalerrri guztien artean sozializatuz ondo egiten duenari zigortzen zaio. Egokiena ordainketa udalerrri bakoitzak gaika bildutako kantitatearen arabera egitea litzateke.

**ALKATEA:** Beste urtetan guk gehiago gastatu dugu eta beste udalerrriak onartu dute.

**IRABAZI:** Akta hauek aztertzen denbora aurrera doa eta gaiak ez gara lantzen hasi.

**TEKNIKARIA:** Aportazio guztiak bi aktatan txertatuko ditut eta asteazkenean bidaliko dizkizuet baina ostiral arte izango duzue edozein aldaketa egiteko epea, egun honetatik aurrera bi akta hauek onartutzat joko dira eta web orrialdean zintzilikatuko ditugu.

Aktan gaia amaitutzat ematen da eta bestea puntuak lantzen hasten gara.

**LANDARLAN:** Sasietari egindako galderen erantzunak web orrialdean ere zintzilikatzea proposatzen du.

Denak baiezkoa esaten dute.

**LANDARLAN:** Egin zen aurre bileran erabakiak adostasunez hartuko direla esan zen. Nola hartuko den erabakia galdetzen du.

**IRABAZI:** Ez da ezer bozkatu behar. Adostasuna denen borondatearekin lortu. Desadostasunak azaldu eta adostasunera eraman.



**EAJ:** Billabonan gertatu da. EAJ-BILDU arteko aurreakordio bat lortu da. Egin daiteke.

**ORDIZIA ORAIN:** Gure filosofiarekin jarraituz, herritarren asanblada bat egingo da. Herritarren zati bat gara, beraien aportazioak jasotzeko asanblada.

**ALKATEA:** Herritarrak kontsultan erabakiko du.

**BILDU:** Bilera hauetako informazioa herritarrak noiz jasoko duten galdetzen du. Aktak ordenatu, dokumentu batera pasa eta hau herritarrei helarazi behar zaie.

**ALKATEA:** Gobernu Batzordean landu zen helburua kontsulta egitea zela eta dena adostuko zela. Gaur garrantzitsua kronograma adostea eta galdera erabakitzea da. Komunikazio kanpainarako informazioa teknikariak prestatuko du eta denen eskura jarriko du. Billabonan eredu bat adostu dute eta honen

	<p><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p><b>16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45</b></p>	
---	---	---

aldeko edo kontrako kontsulta egingo dute. Eredua da gaikako bilketa eraginkor bat, organikoa eta errefusa chip-a duten edukiontzien bidez bilduz.

IRABAZI: Gobernu Batzordean mahaiak 4 betebehar zituela adostu zen:

- Kronograma ezarri
- Galdera definitu
- Prozedimendua ezarri
- Herritarren informazio prozesua bultzatu

PSE: Udaleko komunikazio arduradunarekin batera lantzeko teknikariak komunikazioa foileto bidez, web orrialderako, Facebook, twitter,.... Informazio guztia iristeko.

IRABAZI: Guri gustatuko litzaiuke denen artean adostea eredu bat eta ondoren herritarrak eredu honi baiezkoa edo ezezkoa ematea.

PSE: Billabonan gertatu dena guri ere gustatzen zaigu.

LANDARLAN: Billabonan bi partidu politikoen arteko adostasuna izan da. Baina alderdi politikoez helburutzat botoak irabaztea dute eta hau legitimoa da. Aurrerapen bat izan da baina bertan ez dute mahairik eratu eta ez da egon elkarte, herritarren,... partehartzerik.

PATXI: Ideala izango litzateke alderdi politikoen artean adostea eta ondoren herritarrak erabakitzea.



BILDU: Alderdi politikoez aparte beste eragile batzuk daude. Helburua ez zen alderdi politikoez adostea. Beste ahots batzuk daude eta hauek integratu egin behar dira.

ALKATEA: Gaia hondakinen kudeaketa konpontzea da, ondo egiteko ardurarekin, gaikako bilketa gutxienez %70ekoa eta neurriekin denengana iristeko.

## Prozedimendua

LANDARLAN: Lanerako genituen prozedimendu guztietatik gehiena Donostiakoa gustatu zaigu. Udaletxeko alderdi guztiak, herritarrak, elkarteak,..... parte hartu dute bere eraketan. Oso berria da 2015eko maiatzean onartua dago.

PSE: Donostiakoan hainbat gai daude soberan, puntu asko kendu behar dira.

	<p><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p><b>16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45</b></p>	
---	---	---

ALKATEA: Azkoitiako eredia ere aurtengoa da eta guk eredu hau moldatu genuen.

LANDARLAN: Donostiakoan jartzen du kontsulta egunean mahaiaren lanean udal langileak egon behar dutela eta guri hau ondo iruditzen zaigu.

ORDIZIA ORAIN: Gure ustez, mahaiaren egon behar dute lanik gabe dauden herritarrak.

Denen artean adosten da Donostiako prozedimendua landuko dugula eta hurrengo asteko bileran bakoitzak bere aporazioak edo aldaketak ekarriko dituela.

### Kronograma

TEKNIKARIA: Berak prestatu zuen kronograma azaltzen du, aurreikuspen bat zen:

- Hondakin mahaiaren bilerak: urtarrilak 19, 26 eta otsailak 2.
- Otsailak 22tik martxoaren 6ra: komunikazio kanpaina
- Martxoaren 12 edo 13an: kontsulta

LANDARLAN: Kontsulta egiteko bi egun proposatzen dira. Donostiako prozedimenduan egun bakarra izan behar duela jartzen du.

TEKNIKARIA: Egun horietako batean izango litzateke kontsulta.

ALKATEA: Martxoan udal aldizkaria etxe guztietara banatuko da eta bertan bakoitzak nahi duen mezua jartzeko aukera izango du. Komunikazio kanpainarako informazioa LAIA S.COOP enpresak prestatuko du (teknikariaren enpresak).



ORDIZIA ORAIN: Guk honako kronograma hau aurkeztu dugu:

- Abenduak 20tik otsailaren 17ra: hondakin mahaiaren bilerak.
- Otsailak 18: Asanbladak hondakin mahaiaren ondorioak berresten ditu.
- Otsailak 25: plenoak kontsultako galdera onartzen du.
- Otsailak 29tik martxoaren 11ra: komunikazio kanpaina. Bi bilera auzoko.
- Martxoak 13: kontsulta
- Martxoak 17: plenez berretsi kontsultatik atera den emaitza.

IRABAZI: Kontsulta egin arte, asteartero bilerak egitea proposatzen du.

ALKATEA: Herritarrari eman beharreko informazioa zehaztu egin beharra dago.

BILDU: Prozedura hasi da baina sistema aldageta ematen bada ez da pentsatu behar prozesua amaitu dela. Emaitzak aztertuko behar dira eta neurri

	<p><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p><b>16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45</b></p>	
--	---	---

zuzentzaileak definitu beharko dira. Ezarpenak adierazleen jarraipen bat behar du eta ezarritako neurri zuzentzaileak aplikatu behar dira.

ALKATEA: Hondakin batzordearen eraketa, hobekuntza jarraitu bat lortzeko. Neurtu daitezkeen adierazleak jarri beharra daude.

IRABAZI: Ordizia Orain-ek azaldu duen kronogramarekin ados eta honi gehitzen dio asteartero egingo diren bilerak.

LANDARLAN: Galdera noiz hasiko garen lantzen galdetzen du.

IRABAZI: Gaur egingo dugula zehazten da gai ordenean.

LANDARLAN: Gaur ezin dutela egin esan du. Gainera, Sasietako azken aurkezpena gaur goizean jaso dutela.

PATXI: Galderarako ez dela beharrezkoa Sasietako aurkezpen horretako datuak komentatzen du.

BILDU: Talde baten izenean datorrena, gero taldeari eman behar dio informazioa, Beraz, taldean hitz egin behar dute. Helburua ez da egun batean egitea, baizik eta denek parte hartzeko aukera izan dezatela bermatu behar dugula.

TEKNIKARIA: Aurreko ostegunean bidali nuen aktan gaurko bilerako gai ordenaren aurreikuspen bat zegoen, mahai honetan geratu zen bezala denen artean adosteko, ez da inongo iradokizunik egin eta atzoko emailean gai orden hau bidali nuen.

IRABAZI: Gaur lan guztiak eginda ekarri behar genituen, gai ordena ezagutzen genuelako, ondorioz, bakoitzaren galderarako proposamena eta kronograma ekarri behar genituen. Irabazik biak zehaztuta ekarri ditu.



LANDARLAN: Galdera aurretik gaikako bilketako tasa zehaztu beharko litzatekela esaten du.

IRABAZI: Galdera onartzeko muga data asanblada informatiboaren aurreko hondakin mahaiaren bilera eguna da eta otsailaren 25erako proposatutako plenoan berretsiko da.

EÑAUT: Galdera gaur definitu beharko litzakela esaten du.

LANDARLAN: Datorren asteko bileran kronograma onartzea eskatzen du.

BILDU: Berak ere eskaera berdina egiten du.

	<p><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p><b>16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45</b></p>	
---	---	---

ORDIZIA ORAIN: Asanblada hori herritar guztientzat izango da eta bertan hondakin mahaiko ondorioak azalduko dira, komunikazio kanpaina nola egingo den azalduko da, kontsultarako prozedimendua eta galdera aurkeztu,....

Azkenen, kronograma hurrengo asteko bileran onartuko dela adosten da.

**KRONOGRAMAREN AURREIKUSPENA:**

Urtarrila							Otsaila							Martxoa						
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7		1	2	3	4	5	6
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	7	8	9	10	11	12	13
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	14	15	16	17	18	19	20
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	21	22	23	24	25	26	27
25	26	27	28	29	30	31	29							28	29	30	31			

- Hondakin mahaiaren bilerak
- Asanblada
- Plenoak
- Komunikazio kanpaina.
- Hondakinen bilketa sistema aukeratzeko kontsulta

**Gaikako bilketaren tasa**

LANDARLAN: Atez-ateko sistema 2013ko uztailean jarri zen eta honako gaikako bilketa lortu dugu:





## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



- 2013ko (uztailetik abendurarte) batezbestekoa: %76
- 2014ko batezbestekoa: %76. Bi hilabetetan %79ra iritsi zen (Martxoa eta iraila).
- 2015eko batezbestekoa: %73.

Urte hauetako batezbestekoa: %75

LANDARLAN: Gu ez gaude ados gaikako bilketa %70 batean helburutzat jartzea, gutxi da. Hiru urte hauetako batezbestekoa ikusita, gaizki egiten duenari ondo egiten ari dela esaten zaiola ematen du.

IRABAZI: Erreferentzi puntua %75a izan dadila eta honetara iritsi behar dela berdin delarik zein sistema erabiltzen den.

LANDARLAN: Gaikako bilketako tasa %75a baino handiagoa izan behar du eta epe batetan %85 bat lortzea joan behar da.

EÑAUT: Erabiltzen den sistema herramienta bat da.

HERRI EKIMENA: Helburua da hoberena lortzea.

BILDU: Helburua herritarren heziketa da. Jartzen diren sistemak aldakorrak izan daitezke.

ORDIZIA ORAIN: Sasietak atez-ateko sistemetan inpropioak %7 bat dela esan zuen eta edukiontzien sistemetan berriz, %14 batekoa. Datu hau Sasietari eskatzea nahiko nuke. Gaikako bilketa tasa honetan inpropio hauen kantitatea ere kontutan eduki beharko genuke.



LANDARLAN: Gaikako bilketaren helburua %85eko tasa bat lortzea da.

NEKANE: Herria informatu egin behar da. Herriak ez daki zenbatekoa den gaikako bilketa, hau azaldu behar dugu urtez-urte. Ez diote utzi pedagogia egiten jendeari. Ordizian zer egin den ez da komunikatu. Orain arte egin denaren ehunekoak azaldu behar dira. Sistema bakoitzaren onurak eta desabantailak azaldu behar dira.

ALKATEA: Helburua gaikako bilketaren tasa %100ekoa izatea da. Atez-ate aurretik ontzi arinak, papera eta beira gaika biltzen ziren eta urteetan zehar, beira eta paperan tasak %90 batetara iritsi ziren.

LANDARLAN: Baina gaikako bilketako tasaren batezbestekoan ez da ehuneko hau eman. Gainera, ehuneko horretara iristeko 20 urte behar izan dira.

EÑAUT: Gaikako bilketa tasaren abiapuntua %74-75 jartzen dugu. Galdetzen du nork kontrolatuko duen ehuneko hau eta ez bagara iristen zein izango diren neurri zuzentzaileak.

	<p style="text-align: center;"><b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b></p> <p style="text-align: center;"><b>16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45</b></p>	
---	---	---

PSE: Jarraipena Sasietak egingo du. Baina udal konpetentzia denez guk jarri beharko ditugu eman beharreko pausoak. Batzorde bat badago honek kontrolatuko du.

IRABAZI: Batzorde edo mahai bat egon beharra dago emaitzak aztertzeko, baloratzeko, komunikatzeko, sentsibilizazio kanpainak egiteko,.....

HERRI EKIMENA: Batzorde edo mahai honen helburua hoberena lortzea izan behar du eta kontrolatzeko adierazleak behar ditu.

EMILIA: Herritarrak informatu egin behar dira, atez-atekoa jarri zen baina ez dakigu zein den gaikako bilketaren tasa. Oraindik jendeak ez du gaika bereizten.

BILDU: Gaikako bereizketa egitea behartuta gaudela erantzuten du.

PSE: Batezbesteko horiek betetzeko prest daudela esaten du.

Gaikako bilketaren tasan ez da adostasunik lortu.

### Kontsultarako galdera

IRABAZI: Galdera lantzen hasi beharko genuke, proposamenik ba al dagoen galdetzen du.

BILDU: Galderak hiru aukera erantzun posible ditu:

- Edukiontzi kolektiboak, organikoa eta errefusa chip-arekin.
- Sistema mistoa: errefusa eta organikoa atez-ate eta gainontzekoak edukiontzi kolektiboetan.
- Atez ate

IRABAZI: Hiru aukera badaude bozkatzeko, zergatik ez daude gehiago? Beharrezkoa da bozkatzeko aukera bakoitzak mahai honetako norbaiten babesa edukitzea. Bestela, herrian komentatzen diren beste aukera batzuk sartzea ere legitimoa izango zen nahiz eta mahai honetan ez defendatu, Beasaingo ereduaren bezala. Atez-atekoa hobetu nahi bada, ondo dago, baina bozkatzeko aukera bat da, eta ez bi.

PATXI: Hau Bilduk egin duen proposamena da, berak defendatzen duela esaten du.

EMILIA: Galdera oso zehatza izan behar du. Edukiontzi kolektiboen eta atez ateko sistemen arteko debate bat izan behar du. Erabaki edukiontzi kolektiboen modeloetatik zein den egokiena eta hau jarri atez atekoaren aurrean aukeratzeko.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



**NEKANE:** Nekanek ondorengo galdera hau luzatzen du:

Gaur egun Ordizian lortu da atez ateko sistemarekin %73eko gaikako bilketa bat.

Zertan eta nola jatortu dezakegu zabor eta hondakinen bilketa %73eko birziklapena gainditzeko?

Nola ziurtatuko zenuke aukeratuko duzun sistemak balioko duela %73eko tasa hobetzeko?

Nolako sistema ezarriko zenuke hondakinak bildu edo jasotzeko, beti ere % 73ko tasa gainditze aldera? Eta nola geratuko litzake bermatuta hala izango dela aukeratutako sistemaz?

- Atez-atekoa?
- Atez-ateko osagarri izango dena?
- Ezberdina?

**IRABAZI:** Galdera ireki bat egitea oso konplexua da. Honelako galderak egin daitezke inkesta bidez. Inkesta bat egin daiteke herritarren informazioa jasotzeko.

**PATXI:** Galdera zuzena eta gardena izan behar da. Bere galdera hau da:

- Edukiontzien sistema edo atez-ateko sistemarekin zaude ados?

Edukiontzien eredu ezberdinak azalduz.

**EAJ:** Galdera honako hau da:

Bi sistema hauetatik zein aukeratzen duzu?

- Edukiontzi kolektiboak chip-arekin, bosgarren edukiontziko sistema organikoa eta errefusarentzat.
- Edukiontzi bakarkakoak, atez-ateko sistema.

**ORDIZIA ORAIN:** Guk oraindik ez dugu galdera emango. Beraiek herritarrak nahi duen galdera egiteko irteera bat planteatu dute. Asanblada informatiboan galdetuko dute zein galdera egitea nahi den.

**IRABAZI:** Asanblada informatiboan nahi al duten jaso galdera lehenengo plenora emateko galdetzen dio.

**LANDARLAN:** Ondo iruditzen zait baina hori horrela bada kontsulta eguna atzeratu egin behar da. Beraiek galdera oraindik ez dutela landu esaten du baina galderan minimo tasaren datuak joan behar duela argi dutela esaten du.

**HERRI EKIMENA:** Nik uste nuen bilketa eredu bat adostu behar genuela eta ondoren eredu hau joango zen galderara.

Zein aukeratzen duzu bi sistemetatik:

- Gaur egungo sistema
- Adostutako eredu



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



**HERRI EKIMENA:** Sistema erraza, komodoa eta ekonomikoena izan behar du. Proposatuta daiteke edukiontzien bidez chip-arekin errefusa eta organikoarentzat eta pixoihalentzat edukiontzi bereziak. Ikusi zein den bilketa egokiena. Planteatu A4 modeloa eta bilketa gaur egun bezala egitea (organikoa astean hirutan, errefusa astean behin,.....).

**LANDARLAN:** Atez-atekoaren abantaila bat hori da, limiteak erakusten dituelako, ontzi arin asko ezin da erosi,..... Kuboa txikia da, azkar betetzen da eta astean bitan ateratzen da.

**LANDARLAN:** Datu ekonomikoetan Sasietak komertzio eta tabernei dagokien zatia kalkulatu daitekeela esan zuen. Kalkulu hau egitea eskatu nahi diogu. Berak esan zuen komertzio eta tabernetan atez-ateko bilketarekin bildu beharra daudela hondakinak. Beraz, kontsultan aukeratuko dugun bilketa etxeko hondakinei dagokien bilketa da. Sasietak organikoak kalitate berdina duela bai atez-ate bildu eta bai edukiontzi bidez bildu esan zuen. Neri ez zidan konbentzitu. Organikoaren analisisa egiten dutela esan zuen eta datu horiek eskatu behar dizkiogu.

**PATXI:** Kamioietako organikoa Sasietan bota eta han begiratzen dutela esan zuen.

**EMILIA:** Bere galdera honako hau da:  
EAJ-k egin duen berdina.

Bi sistema hauetatik zein aukeratzen duzu?

- Edukiontzi kolektiboak chip-arekin, bosgarren edukiontziko sistema organikoa eta errefusarentzat.
- Edukiontzi bakarkakoak, atez-ateko sistema.

**PSE:** Bere galderan bi aukera daude:

- Edukiontziak edo atez-ate.

**IRABAZI:** Irabazik galdera adostu baten aldeko apustua egiten du, bilketa eredu bakar baten gainekoa izan dadila, Billabonako akordioak adibide bezala balio digu, eta bozkatu dadila bai edo ez eredu berri horren gainean. Galderaren aurretik adostutako testu batekin sarrera bat egitea proposatzen dugu, bertan herritarren ingurumen ardura eta %74ko gaikako bilketa minimo batera lortzeko aipamenak eginez.

Oso zaila denez eredu bakar bat adostea, bi eredu jartzen ditugu aukeran, atez-atekoaren aldekoek aurkezten diguten eredu hobetua eta edukiontziak defendatzen dituztenek beraien eredua aukeran jarritz.

**NEKANE:** Atez-atekoan hobekuntza bezala pixoihalen edukiontzi jarri daiteke. Orain atez-ateko sistema jarriko nuke baina neurri zuzentzaile batzuekin. Lehen komentatu den inkestaren gaia lehenago egin daiteke, talde honek bakarrik egitea murrizta da. Prozesua luzatuko du baina ideia gehiago lortuko ditugu nahiz eta jakin partehartzea ez dela handia izango.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/02 Udaletxean 18.00-20.45



IRABAZI: Sistemak konplexuagoak egiten baditugu dena zailagoa da.

BILDU: Bakoitzak ikusiko duela zer proposatzen duen erantzuten du. Herri ekimenak planteatu du bilketaren egutegi bat mantentzea, norberaren autorregulazio pautak batzuk emateko balio du.

LANDARLAN: Galderaren proposamena bidaliko dutela esan du.

IRABAZI: Guk aukera bakarra nahi genuen kontsultara eman baina ezin bada, metodo batetan pentsatu dugu eta hau, bakoitzak bere zatia azaltzea da. Proposatzen dut, alde batetik, Landarlaneko Edurnek atez-atekoaren inguruko testu bat lantzea eta bestetik, herri ekimeneko Jose M<sup>a</sup>-k edukiontzien inguruko testua lantzea. Bakoitzak gehienez 2 edo 3 lerroko testua egin dezakete.

LANDARLAN: Gure taldea ez da sistemaren inguruan definitu. Beraiek errauskailuaren aurka daude.

Bilera asko luzatu da, 20:45 dira eta bilera amaitutzat ematen da.

### Hurrengo bilera

Hurrengo saioa otsailaren 9an arratsaldeko 18:00etan izango da Ordiziako Batzar Aretuan.

Bertan, ondorengo gai-ordena lantzea aurreikusten da:

- Aurreko aktaren onarpena
- Donostiako prozedimendua: aportoak
- Kronograma onartu
- Gaikako bilketa tasa adostu
- Galdera adostu
- Komunikazioko edukiak aztertu